

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko otsailaren 17a. VIII. urtea. 2.176. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Iñaki eta Inaxio Perurena Harri-jasotzaileak

«Lana euskal kulturako zerbait ikusi nahi duenarentzat polita izango da»

Larunbat gauean Jon Garañoren 'Perurena' dokumentala ikusi ahal izango da ETB1n; Iñaki eta Inaxio Perurena harri-jasotzaile leitzarrak dira laneko protagonistak

Inaxio semea 300 kiloko harria jasotzeko ahalegina prestatzen ari da «buru-belarri». «Nere buruarengan segurtasuna hartzen dudanean joanen naiz plazara», dio **5**



Inaxio eta Iñaki Perurena harri-jasotzaile leitzarrak herrian bertan duten Peru Harri parkean. M.UGARTEMENDIA

Izena eman daiteke jada Uzturreko etxebizitzetan

Martxoaren bukaerarako bukatuak egongo diren Tolosako Gerontologiko berriaren ondoan egiten ari diren 21 apartamentuak; guztira 30 plaza eskaintzen dituzte **3**

Igandean hasiko dira Zazpi-Iturriko pilotariak Berria Txapelketan

Amezketarrak Lagun Onak taldearen aurka ariko dira Zornotzako frontoian **7**

Ohiturari jarraituz gibela dastatuz hasiko dira Lizartzako Inauteriak, etzi

Datozen bi asteburuetan jaia izango da nagusi; ekitaldi gehienak datorren asteburuan izango dira **6**

www.tolosaldea.hitza.info

herrietako informazioa inoiz baino gertuago ezagutu gure webgune berriak

www.ibarraldea.hitza.info • www.alegialdea.hitza.info • www.anoetaldea.hitza.info • www.villabona-aiztondo.hitza.info • www.leitzaldea.hitza.info • www.tolosa.hitza.info

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

Dagoeneko irekita!

EGYZKITZA
TOLARE SAGARDO TEGIA

TEL. 943 67 26 13



Nikaraguako emakumeen hezkuntza bermatzeko bilduko dute dirua. HITZA

Datorren astean izango da Amaro Auzo Elkartearen Merkatu Txikia

Nikaraguako Xochilt Acalt emakume antolatuen zentrora bideratuko dira merkatuko irabaziak

Erredakzioa

Aurten, beste behin ere, Amaro Auzo Elkarteak Merkatu Txikia antolatuko du. Asteartean, hilak 22, hasiko da eta igandera arte egongo da zabalik Tolosako Kultur Etxeko beheko solairuan 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Edizio honetan beren elkartasuna berriz ere Malpaisilloko Xochilt Acalt zentrorra bideratuko dute amaroztarrek. Zentro honetan emakumeen hezkuntza bideratzen da, eta merkatu txikian lortutako irabaziekin 18 eta 50 urte bitarteko 25 emakumeren prestakuntza prozesua bideratuko dela aurreikusten dute antolatzailleek. Elkartetik adierazi dutenez, duela 16 urte jarri zen abian emakumeen alfabetatzerako pro-

grama hau. Emakume gehienak familia ugarietan bizi ziren, eta etxeko lanei erabat loturik zeuden.

Autonomia falta honek, eta familiekiko menpekotasunak, eskola adinean mugak sortarazi zizkien, eta euren komunitatean eskolarik ez zegoenez, analfabetismoa orokortu egin zen Nikaraguako eremu honetako emakumezkoen artean.

Laguntzek emandakoa

Urte hauetan guztietan burututako lanarekin, eta Tolosako herriari eskainirik laguntzarekin, «aurrerapauso esanguratsuak» lortu dituzte Nikaraguako emakumeen zentroan. Besteak beste, 222 emakumek lehen mailako ikasketak egin dituzte; 49k batxilergoa bukatu eta goi mailako ikasketak burutzen ari dira; 31 emakumek bukatu dituzte jada Nekazarita eta Abeltzantzako Teknikari ikasketak, eta baita beste 17 emakumek Albaitaritzakoak ere.

Era berean, 2011. urtean 100 emakumetik gora ari dira beren

ikasketak lehen mailan, bigarren mailan, ikasketa teknikoetan, medikuntzan, albaitaritzan nahiz psikologian burutzen. «Honek guztiak emakume bakoitzaren autoestimua handitzen laguntzen» dietela nabarmendu dute antolatzailleek, eta halaber emakume hauek «beren familia nahiz komunitateei babesa emateko laguntza» jasoko dutela.

Herritarrek ezinbesteko

Amarozko Auzo Elkarteak antolatzailleek herritarrei laguntza eskatu nahi diete, eta Merkatu Txikira hurbiltzeko gonbita luzatu ere bai.

Aurten, gainera, aipaturiko emakumeen zentroko arduradun baten bisita izango da, eta merkatura bertaraten direnek aukera izango dute Nikaraguan bertan abian den prozesuari buruz nahiz egiten ari diren lanaren inguruan informazio zehatzagoa eskuratzeko.

Bestalde, zuzenean diru laguntza eman nahi duen orok Kutzako kontu hau izango du irekita: 2101 0081 15 0124410788.

Ekozinemaldia Amarotzera iritsiko da aurten

Auzoetxen Kubako petroleoaren krisiari buruzko filma ikusi ahal izango da asteartean, 19:30ean

Erredakzioa

Ekologistak Martxan erakundeak bosgarrenez antolatuko du aurten Ekozinemaldia. Euskal Herriko herri desberdinetan eskainiko dituzte filmeen proiektzioak, eta horietako bat Tolosan izango da, Amaro Auzoetxen, datorren otsailaren 22an, 19:30ean.

Elkarte honetan Euskal Herriko ingurumen-arazoei begiratze-ko modu bat lantzen dute, herri-ekologismoaren bidetik. Euren ustez ingurumena kaltetzen duten jardueren aurkako sentsibilizazio kanpainak nahiz salaketa publikoak burutzen dituzte, eta Ekozinemaldia da urtean zehar egiten dituzten ekimenetarikoa. Aurten, 2011. urtean 100 emakumek lehen mailako ikasketak egin dituzte; 49k batxilergoa bukatu eta goi mailako ikasketak burutzen ari dira; 31 emakumek bukatu dituzte jada Nekazarita eta Abeltzantzako Teknikari ikasketak, eta baita beste 17 emakumek Albaitaritzakoak ere.

'No me hagas daño' lana bihar, Leidorren

Erredakzioa

Ttanttaka Teatro taldeak *No me hagas daño* antzezlanaren aurkezten du bihar Leidor aretoan, 20:30ean.

Fernando Bernuesen gidaritzapean, Maiken Beitia, Kike Diaz de Rada, Olaia Gil, Tania de la Cruz eta Isidoro Fernandez izango dira

len agertoki. Hain zuzen ere aurtengo herrikuntzarik nabarmena izango da agertoki kopurua. 13 herri hauetako batzuetan filme bat bakarrik proiektatuko dute, eta hauxe izango da Tolosaren kasua.

Zor ekologikoaren inguruan

Ekozinemaldian eskainiko diren filmak zor ekologikoari buruzko munduko pelikulen arteki aurkezturikoak izango dira.

Amarozko Auzoetxen *El poder de la comunidad. Como Cuba sobrevivió al pico del petróleo* filmaz gozatu ahal izango dute bertaratuak. 1990an Sobietar Batasuna gelditu zenean Kubako ekonomia lurra jo zuen: petrolio nahiz elikagaien inportazioa asko jeitsi zen. Kuba izan da erregai fosilen erabateko murrizpenei aurre egin dien herri bakarra, eta dokumental honetan garai hartan kubatarren bizi izan zituzten zailtasun eta etsipen goerak ikusgai izango dira.

Era berean, Osvaldo Bayer gidariaren *Awka Liuen* filma aipagarritzat jo dute antolatzailleek. Argentinako lurren lapurreta eta hondamendiaz dihardu du pelikula, eta baita konkista eta ondorengo independentzia garaiko herrien aurkako genozidioaz ere.

oholtza gainean. Genero biolentzia ikuspuntu desberdinetatik lantzen du antzerki obra honek, eta modu honetara, maiteminduta dagoen emakumea, biktimaren kulpa-pentsamendua nahiz tratatu txarrik ematen dituen gizonearen psikologia pertsonaietan islatuta ikusi ahal izango ditu ikusleak.

→ Laburrak

Aiz-Orratzen mozorro lehiaketako izen-ematea

INAUTERIAK › Aiz Orratz-Veleta elkarteak urtero antolatzen duen mozorro lehiaketa otsailaren 26an izango da, Emeterio Arreseko Harizpe jubilatu elkartean. Ondoren, urteroko moduan, haur jaialdia eta sari

banaketa izango da Leidor aretoan. Lehiaketan parte hartzeko hilaren 21etik 25era bitartean eman beharko da izena Aiz Orratz-Veleta elkartearen (Rondilla kalea, 46), 19:00etatik 20:30era.

Herritarrentzako merienda gaur, Zumalakarregin

GIZARTEA › Zumalakarregi pasealekuan hilabeteetan zehar aritu dira obretan, bai

kollektorearen lanekin, eta baita ibiltokiko berritze lanekin ere. Urbanizazio obraren amaiera dela eta, udalak bertako bizilagun nahiz dendariak gonbidatu nahi ditu gaztainak, txurroak eta txokolate beroa jatera hurbil daitezke, obrek sorturiko eragozpenen aurrean herritarrek izan duten jarrera eskertzeko. Gaur Zumalakarregi pasealekuan, beraz, herritarrentzako merienda izango da 19:00etan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Uzturre zentroko apartamentuetan izena emateko epea zabalik da

Eskaera egiteko 65 urte izan behar dira; pertsona autonomoa izatea ere ezinbestekoa izango da

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Udalak Uzturre asistentzia zentroan adineko autonomoentzako egindako apartamentu balioaniztunak esleitzeko oinarriak onartu zituen urtarilaren 23an. Interesatuak martxoaren 4a bitarte, eskaerak aurkezteko aukera izango dute.

21 apartamentu eskaintzen dira, guztira 30 plazekin. Etxebizitzak Gerontologiko berriaren ondoan aurkitzen dira, baina oraindik amaitu gabe. Hala eta guztiz ere, martxoaren amaierarako eginak egotea espero dute Tolosako Udaleko arduradunek.

Bete beharreko baldintzak

Apartamentu bat lortu nahi duenak, hasteko, eskaera egitean 65 urte beteta izan beharko ditu. «Hala ere, irizpide honek salbuespenak izan ditzake, eskatzailea

ren egoera kontuan hartuta eta baliabidearen beharra frogatzen bada, agiri teknikoekin», azaldu dute udaletik.

Bestetik, pertsona autonomoa izatea «ezinbestekoa» da, edo lehen graduko mendekotasuna izatea, Mendekotasun Balorazio Barmoaren arabera.

Horrez gain, baldintzen artean, ondorengoak aipatu dituzte: «Etegabeko asistentziarik ez behar izatea osasun erakundeetan, edota osasun publikoko neurriak hartzea. Ezinbestekoa da ere, interesatuak inolako arazo psikologik ez edukitzea, ez eta elkarbizitza arazorik sor lezakeen jokabiderik ere».

Martxoaren 4a baino lehen aurkeztu behar dira eskaera orriak

Izena ematen dutenek, Tolosan erroldatuta egon beharko dute azken bost urteetan, etenik gabe, edo 10 urte azken 15 urteetan. Azken kasu honetan, urtebeteko antzintasuna izan beharko dute eskaera egiteko garaian. Baldintza



Udal ordezkari eta teknikoak Uzturre asistentzia zentroko apartamentuetan. A. MAZ

hau betetzen ez dituenak baina herriarekin lotura personala edo familiarra duela azaltzen duenak, aukera izango dute apartamenturen bat lortzeko. Beti ere, egoera hori Gizarte Zerbitzuek baloratuko lukete.

Eskatzaileen ekonomia

Apartamentu bat errentan hartzeko, urteko sarrera gordinekin, eskaeraren aurreko urtea erreferentzia bezala hartuta, ezingo du IPREMen %325a gainditu, eskatzailea pertsona bakarra denean, edo IPREMen %450a, bi pertsonako elkarbizitza unitate bat denean.

Bestalde, eskatzailearen ondasunen zenbatekoak, ohiko etxebi-

zitza alde batera utzita, ezin ditu gainditu 180.000.000 euro, gela eskubideko apartamentu bat eskatzen denean. Gehienezko kopurua berriz, 100.000.000 eurokoa izango da, errentako apartamentu bat eskatzen denean. Bi pertsona direnean berriz, aipatutako kopurua bider bi egin behar da.

Azkenik aipatu, apartamentu baten adjudikaziodunak etxebizitza bat baldin badauka jabetzan, jabetza soilen, azalera edo gozamen eskubidearekin, konpromiso hartuko duela sei hilabeteko epean, esleipena formalizatzen denetik, aipatu etxebizitza salgai jartzeko, errentan edo zesoan uzteko. Izan ere, etxebizitzak ohiko bizitoki bezala geratu behar du.

Baldintzak bete eta eskaera egin nahi duenak, Tolosako udaletxean eta honen webgunean eskuratu daitekeen eskaera ereduak bete beharko du.

Ondoren, hau udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu beharko du, edota postetxera eraman. Lehen aipatu bezala, martxoaren 4an amaituko da eskaerak egiteko epea.

Eskaeren balorazioa Tolosako Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Departamentuko pertsonak teknikoak egingo du.

Gero, apartamentuen esleipena egiteko, bi apartamentu modalitateak zerrenda desberdinetan adjudikatuko dira, erabakitako baremoa aplikatuz.

Bilboko manifestaziora joateko autobusak antolatu dituzte

Legalizazioaren alde etzi egingo den martxara joateko, ohiko lekuetan zerrendak jarri dituzte eskualdean

Erredakzioa

Euskal gizarteko 22 lagun ezagunek ezker abertzalearen legeztatzea eskatzeko manifestazio isilera deitu zuten Bilbon. Martxa etzi izango da, 17:30ean Casillatik irten eta *Bakerantz, legalizazioa* lelopean.

Manifestazioaren deitzaileen artean, Lokarriko kidea den Paul Rios, Txaro Arteaga Emakunde-ko presidente ohia, Gabriel Mariscal Bizkaiko abokatuen dekanoa ohia, Ramon Zallo EHUko irakaslea, Pedro Ibarra EHUko irakasle izandakoa, Maixux Rekalde Elkarriko zuzendaritzakide ohia eta

Natxo Isuzkiza apaiza aurkitzen dira. Oraingoz, ezker abertzaleak, Aralarrek, EAK, ELAK, LABek eta 40 gizarte eragilek agertu dute atxikimendua.

Eskualdean hainbat deialdi

Tolosaldeko eta Leitzaldeko ezker abertzaleak autobusak antolatu ditu hainbat herritan, Bilbora joateko. Izena emateko zerrendak ere jarri dituzte ohiko lekuetan. Ibarran adibidez, autobusa 15:15ean irtengo da kultur etxearen atzealdetik. Ezker abertzaleko kideek herritar guztiak deitu dituzte mobilizaziora.

Anoetako ezker abertzaleak Itzuli tabernan jarri du zerrenda. Autobusa 14:45ean irtengo da plaza eta hemen ere herritar guztiak gonbidatu nahi izan dituzte manifestaziora.

Tolosatik 15:30ean abiatuko dira Trianguloatik. Izena emateko aukera berriz Raku eta Denak

tabernetan aurkitzen da eta, bihar amaitzen da horretarako epea.

Asteasuko ezker abertzaleko kideek, herritar guztiak gonbidatu dituzte larunbateko Bilboko manifestaziora. Autobusak Villabonatik irtengo direla ere azaldu dute, eta apuntatzeko telefono zenbaki bat utzi dute: 615 70 87 32a, hain zuzen ere. Ostirala baino lehen deitzea eskatu dute azkenik. Amezketan berriz, autobusa 15:00etan irtengo da. Ondoren Alegian geldituko da, 15:15ean. Ikaztegietaoak ere bertara deitu dituzte.

Leitzan ere zerrenda zabalik aurkitzen da Torrean. Autobusa beteko balitz, 15:00etan aterako litzateke Bilborantz. Besteak beste, Lizartzan ere antolatu dute autobusa. Izena emateko aukerak herriko tabernetan aurkitzen dira. Irteera ordua aldez, 15:30ean jarri dute.

→ Laburrak

Iurreamendi egoitzan kontzertua igandean

TOLOSA › Iurreamendi egoitzan kontzertua emango dute Tolosako Udal Txistulari Bandak eta Tolosako Musika Bandak, hilaren 20an, 11:30ean. Txistularien zuzendaria Iñaki Letamendia izango da eta Musika Bandarena aldiz, Luis Mari Gartzia. Kontzertua amaitzeko Inauterietako piezak joko dituztela azaldu dute.

Euskal Herria Eguna antolatzeke bilera

IBARRA › Aurten, III. Euskal Herria Eguna ibarbarrei antolatzeko dagokie. Irailaren 17an ospatuko den arren, prestaketa lanetan hastekoak dira. Horretarako, bilera egingo dute hilaren 22an, asteartean, Sendi Ekintza elkartearen. Bileraren 19:00etan izango da.

Tolosaldeko mus jokalariek Seguran jokatu dute hilaren 26an

Erredakzioa

III. Euskal Herriko Mus Txapelketak aurrera jarraitzen du. Zazpi lurraldeetako 250 herrietara iritsi da txapelketa eta lehiak 300 lekutan jokatu dira. Martxoaren 12an finala jokatu da Urruñan. Bertan zazpi herrialdetako 128 ordezkari bilduko dira egun osoan zehar luzatuko den final handiaz gozatzeko. Arabatik 16, Bizkaitik 14, Gipuzkoatik 32, Nafarroa Garaatik 32, Lapurditik 18, Baxe Nafarroatik 12 eta Xiberuatik 4 bikote lehiatuko dira.

Gipuzkoatik Urruñara nortzuk joango diren erabakitzeko, hilaren 26an, Segurako Baratze pilotalekuan kanporaketa berri bat jokatu da. Eskualdeko ordezkariak hara deitu dituzte.



Herritarrak, langileak, udal ordezkariak, sindikatuak,... bildu ziren Tolosan egin zen bileran, asteartean. Bilera oso jendetsua izan zen. I. GARCIA

Asteartean hainbat herritar Tolosako Kultur Etxean bildu ziren. Osasun arloko zerbitzu publikoarekin gertatzen ari denaren berri eman zuten eta honi aurre egiteko koordinakunde bat sortu nahi dute.

Zer gertatuko da anbulatorioarekin?

Erredakzioa Tolosaldea

Azken hilabeteetan pil-pilean dagoen gaia da Tolosako anbulatorioa itxi nahi dutenaren zurrumurrua. Osasun zerbitzu publikoa eskaintzen duen anbulatorioa itxi, guztia Asuncion Klinikara bideratu nahi dute, zerbitzu guztiak pribatizatuz.

Hori dela eta, Zahartzero Dui-narel Aldeko plataformako kideek, astearteko bilera deitu zuten. Bileran garbi utzi nahi izan zuten, Tolosaldeko herritar guztion esku dagoela egoera honi buelta ematea. Beraiek bidea irekiko dute, baina koordinakunde berri bat osatu beharko da gai honen inguruan lan egiteko.

Bertako langileez gain, bezero diren eskualdeko herritar guztiak izango dira kaltetuak. «Kal-

teturik handienak, hain zuzen ere». Herritar guztiak, osasun zerbitzu publikoa izateko eskubidea dutela aldarrikatu beharra dagoela uste dute astearte iluntzean bildu ziren lagunek.

Anbulatorioaren egoera

Bileran, honakoa, langileek urte-etan bizitu duten egoera dela gogoratu zuten, izan ere «1990-1995 urteetan hasi ziren zerbitzuak desagiten». Esaterako, besteren artean, oftalmologia edo urologiako kontsultak desagertu egin ziren. Edo erreabilitazio zerbitzua balioa galtzen utzi zutelaz azaldu zuten.

Alde batera uzten joan dira anbulatorioa eta joera hori nabarmena izan dela argitu zuten. Joe-rra nabarmen honek bat egiten zuten Asuncion Klinikaren egoera ekonomiko txarrarekin. «Ga-

rai hartako buruak, Osakidetza-ri diru asko zor ziola eta kargua uztea erabaki zuten», gogoratu zuten.

Jarraian, enpresa berri bat sartu zen eta Tolosaldeko behar guz- tiei erantzuna emango ziela zio- ten. Garai hartan, broma moduan hartu zuten baina gaur egun egia bihurtzen hasia da. Anbulatorio- ak gero eta balio gutxiago du eta Asuncion Klinikara gero eta garran- tzi handiagoa hartzen ari da.

Plataformako kideen ustez, «Osakidetza garai hartan, erosi egin beharko zukeen klinika. Gi- puzkoa osoan, Tolosaldea da es- kualdeko ospitale publiko bat ez duen bakarra» zioten.

Erabaki politikoak direla ere sa- latu nahi izan zuten. «Eusko Jaur- laritzako alderdi politikoan alda- keten ostean, ez dela ezer asko al- datu» salatu zuten. «EAJkoa den Gipuzkoako Osasun saileko zu- zendaria zena eta ondoren osasun saileko sailburuordea izan zena, kargurik gabe geratu zenean,

«Tolosaldeko herritar guztion esku dago zerbitzu publiko baten aldeko borroka egitea»

Asuncion Klinikako zuzendari- tzan agertu da» gaineratu eta az- pimarratu zuten. Honekin eraku- tsi nahi izan zuten «aurrekari- hauek esanguratsuak direla» guz- tia ulertzeko. Eta «PSOEk azken

bultzada eman dio». «Pribatuak ezingo du publikoaren zerbitzua eman. Dirua du helburu eta ez jen- dearen osasuna. Eta pribatu izate- arekin ez du funtzionatuko eta gainera diru publikoa beharko dute» adierazi zuten.

«Zerbitzua pribatua bada, ordaintzeko dirurik ez duenarekin zer gertatuko da?»

Ezkutuan eraman dutela guz- tia salatu zuten eta langileak ere ia ez direla ezertaz enteratu adie- razi zuten. Tolosaldea Garatze- nek, alkateekin eginiko bileratik informazio zuzenagoa eskuratu zutela azaldu zuten. Era berean, haserre agertu ziren mozioaren inguruan prentsan agertutako in- formazioarekin.

Herritarren kezak

Borroka eginez lortzen da gauzak aldatzea eta bertaratuen artean izan zirenek ere, zerbitzu publiko- ak erabiltzeko eskaera eta eskubi- deak aldarrikatzea bakoitzaren esku dagoela utzi zuten argi. An- bulatorioa edo zerbitzu publikoe- tara bideratu beharrean, pribatu- ra bidaltzen dituztela salatu zuten bertaratutako gizonetzko batek. Eta berari gertaturikoa kontatu zuten. Bere betiko kardiologo- a- rin jarraitu beharrean, pribatu- kora aldatu nahi izan zioten. Eta ukatu arren ez ziotela ulertzen

azaldu zuten. Ebakuntza publiko- an egiteko zailtasunak izan zi- tuen. Berak, aurka eginda lortu zuela azaldu zuten, baina jende asko isil-isilik onartzen ditu gau- zak, herritar honen aburuz.

Beste emakume batek, izan dai- tezkeen ondorioez gizartea jabetu gabe dagoela azaldu zuten. Bera ere «txirripaz» enteratu dela eta bere kezka azaldu zuten: «Ez da helduen kontua bakarrik. Nire alaba arazoekin jaiotzen eta trata- mendua behar zuten. Botika ba- tzuk doan dira baina beste batzuk ez eta nire alabak behar zuten bat, ezingo genukeela erosi ere egin esan ziguten. Eta ingeniari fami- lia bati ere gerta dakioke. Honela- ko kasuetan zer gertatuko da?».

Eskualdeari dagokion zerbi- tzua eta espezialitateak dituen an- bulatorio publikoa behar dugula garbi zuten. Dударik gabe, gaiak luzerako emango du.

↓ Deialdi irekia

HILAK 22, ASTEARTEA

■ **Tolosako Kultur Etxean.** 20:00etan elkartuko dira. Nor- banako eta elkarteekin, koordi- nakunde bat sortu nahi dute. Honen lana, aurrera begira, in- formazioa zabaltzea, deialdiak egitea edo egoera aldatzeko bi- deak bilatzea izango da. Lan egin nahi duen edonor gonbidatu- ta dago.

Iñaki eta Inaxio Perurena ◀ Harri-jasotzaileak

‘Perurena’ dokumentala larunbat gauean ikusi ahal izango da ETB1n, Inaxio eta Iñaki Perurenari buruz egindako lana da.

«Dokumentala ez da harri-jasotzeari buruzkoa bakarrik, askoz gehiago da»

Maier Ugartemendia Leitza

Joan den astean estreinatu zuten Donostian *Perurena* dokumentala. Larunbat honetan ETB1n ikusi ahal izango da.

Dokumentalean ez da harri-jasotzeari buruz bakarrik hitz egiten, bertan aita eta seme baten erlazioa azaltzen da. Eta baita Inaxio Iñaki Perurenaren semea izateagatik jasotako etengabeko konparaketa ere. Bi protagonistak gustura daude azken emaitzarekin.

Zer moduzkoa izan zen dokumentalaren estreinaldia?

Iñaki: Nahiko poliki joan zen. Atera kontuak, zortzi egunetara telebistak bota behar zuela, eta jendea espresuki ikustera joatea eskertzekoa dela. Jende dezente joan zen eta poliki egon zen.

Inaxio: Nahiz eta kezka pixka bat bagenuen, juxtu zortzietan bota behar zuten filma. Aurretik ETBkoek galdera batzuk egiteko gelara sartu gintuzten eta ez zen inor sartzen. Kanpora atera ginenean, ordea, jendea ilaran ikusi genuen. Gogoia genuen jendeak zer erreakzio zuten ikusteko.

Eta, dokumentala bera ikusi zutenek zer moduzko harrera egin zioten filmari?

Inaxio: Guk bi hilabete aurretik ikusi genuen eta berriz ikusteko gogoia genuen. Momentu politikak dauzka, baita umorezko zenbait une ere, eta jendeak barre asko egin zuen. Giro oso berezia zegoen, polita.

Jon Garañok zuei buruzko dokumental bat egin nahi zuela esan zizuenen, zer pentsatu zenuten?

Iñaki: Hona lehen ere kazetariak etorri izan dira, erreportajeren bat edo saio desberdinak egitera. Momentu hartan ez dakizu zein izango den emaitza. Garañok lanak denbora hartuz eta ondo landuta egiten ditu. Berak, nik uste, momentu hartan ez zuen uste azkeneko emaitza hori izanen zenik.

Zer ikus daiteke dokumentalean? Filmak ez baitu harri jasotzeaz soilik hitz egiten ezta?

Iñaki: Ez, behar bada harria jaso aurretik pasatzen diren momentu horiek, burutazioak eta abar azaltzen ditu. Gure mundu horretako irudiak ateratzen dira. Txikitatik prozesua nola hasten den erakusten du. Gertatzen dena da, lehenengo egunetik Inaxiori aitaren erreferentzia aipatzen ziotela eta hori ere ikus daiteke. Baina, hori ez da kirolean bakarrik ikusten, beste arlo batzuetan ere gauza berdina gertatzen da.

Inaxio: Garaño Belodromoko publikoan zegoen nik 263ko harria altxatzeko ahalegina egin behar nuenean, eta aitak 1.700 aldiz 100 kiloko altxa behar zuenean. Ideia handik sortu zitzaion. Hori 2003. urtean izan zen eta handik urte batzuetara 285eko harriarekin ahalegina egin behar nuen, eta orduko ahaleginaren aurreko umeak ikus daitezke. Ez da plazan

«Aita-semeen arteko konparaketa ez da kirolean bakarrik gertatzen»

ikusten den irudia bakarrik. Entrenamenduak, errekorreko momentuak, umetako irudiak eta abar ikus daitezke.

Iñaki: Behar bada bestelako kirol emanaldi batean ikusten ez direnak. Nolabait transmisio batean plazako saioa ikusten duzu, eta dokumentalean barruko ikuspegiak ikusten da gehiago.

Inaxio: Gainera, plazara ateratzeko umea oso txarra da eta dokumentalean hori ere ikus zenezake. Nire 285eko saioa eta Asteasun 300 kiloko harria jasotzen saiatu nintzeneko umeak ikus daitezke, baita azken hau jaso eta atzera erori zitzaidan momentua ere. Nolabait 300 kiloko zifra borobil hori berezia da, sona handia izan zuena bere garaian eta hiru harri-jasotzailek bakarrik lortu dutena. Niri dagokidanez hor ematen dio bukaera dokumentalari.

Proiektua orain dela urte asko hasi zen eta prozesua oso luzea izan da.



M. UGARTEMENDIA

Noiz jarri zen Garaño zuekin harremanetan?

Inaxio: Berari ideia 2003an sortu zitzaion, baina hasiera batean bertan behera utzi zuen. Gero, AEBetara joan zenean dokumental bat egin behar zuela eta Belodromoko ideia ekarri zuen berriz ere gogora. 2005ean hasi zen ideia mugitzen.

Iñaki: Prozesu horretan askotan pentsatzen duzu proiektua ez dela sekula aurrera aterako. Nik uste berak ere askotan pentsatu zuela hori, baina ETBren enkargua zue- nez, nola edo hala zerbait egin behar zela erabaki zuen.

Orduan, emaitzarekin gustura gelditu zarete?

Inaxio: Pribilegio bat da. Zuk ez duzu pentsatzen, zure karreraren horrelako suertea izango duzunik. Estreinaldian hunkitu egin nintzen eta bera ere zoriaduen orain dela bi hilabete, egindako lanagatik.

Iñaki: Dokumentalean orain dela 20 bat urteko *Ispiluan* saioa, ETBko dokumental serie bateko, irudiez baliatu da. Bertan, Euskal Herriko hainbat pertsonaieki buruzko ordu erdiko dokumentalak egin zituzten. Eta pertsonaia horien artean ni ere banengoen. Dokumental haiek txukun eginda zeuden, eta Garaño orduko irudiez baliatu da eta progresioa aztertut du. Ume batek hasieratik nolako eboluzioa duen aztertzen du. Urte askotako prozesu bateko irudiak bildu ditu eta landuta egin du filma.

Aipatutako gaiez gain, aita eta semearen arteko erlazioaz ere hitz egiten du. Inaxio, nola bizi duzu Iñaki Perurenaren semea izatearena?

Inaxio: Dokumentalean ere esaten da, harri-jasotzailea bazara nahiko gogorra dela. Beti galderetan dizute noiz hautsi behar dituzun aitaren markak. Hasieran go-

gorra egiten zaizu, baina umorez hartu behar duzu. Deskonektatu, entrenatu eta zuk zure bidea hartu behar duzu.

Iñaki: Dokumentalaren abiapuntua Garañok esaten du 263 kiloko harriaren saiakeran hasi zela. Baina, dokumental horren abiapuntua 5 urteko ume bat harri bat jasotzera plazara joan eta kazetari batek aitaren markak noiz hautsi behar zituen galdetuzion umea da. Dokumentala betiko konparaketa horri buruz ari da.

Galderari buelta emanda, Iñaki alde batetik harri-jasotzaile izanda, eta bestetik aita izanda, nola bizi izan duzu Inaxioren prozesua?

Iñaki: 5 urteko ume batek ez daki zer egiten duen, futbol partida batean ume txiki bat saka egitera eramaten da. Hori nolabait tradizioari eusteko zerbait da. Baina, 12 urtetara iritsi zenean, harriarekin jarraitu behar bazuen gauzak beste modu batera egin behar ziren. Nire esperientziatik, nire us-

«300 kiloko harria jasotzeko ahalegina prestatzen buru-belarri nabil orain»

tez biderik onena erakusten saiatu naiz eta momentu batetik aurrera bera hasi zen erabakiak hartzen.

Dokumentala momentu garrantzitsu batean iritsi da, 300 kiloko harria jasotzeko prestatzen ari baitzara Inaxio. Zer moduz doaz prestaketak?

Inaxio: Dokumentala bukatuta zeukan eta berak aukeratu zezakeen data. Nik errekorrekin ezin dut gauza bera egin. Ni orain buru-belarri nabil entrenamenduetan. Nere buruarengan segurtasuna hartzen dudanean plazara joanen naiz. Errekor hori egiteko garaian, ilusio aldetik horrelako

laguntza bat ematea niri ondo etorri zait. Eta, ea azkar lortzen duen errekor hori.

Iñaki: Dokumentala orain atera da Garañok ETBk egindako enkargu bat zuelako eta atera beharra zuelako, zeren dokumentala bera Asteasuko ahaleginen bukatzen da. Nire ustez momentu hau baino politagoa edo egokiagoa 300 kiloko harriarekin egindako ahaleginaren aurretik edo ondotik izango zen.

Azkenik, dokumentala bera eta honek suposatzen duen guztia kontutan hartuta, zerekin geldituko zinatekete?

Iñaki: Harri-jasotzea Euskal Herriko ohitura eta kultura da. Eta, harri-jasotzeari beste ezaguera bat eman zaio. Normalean saio batean edo elkarrizketa batean ikusten ez den zerbait gehiago ikusteko aukera ematen du.

Inaxio: Ni pertsonalki dokumentala antzokian bota zutenean jendearen erreakzioarekin gelditzen naiz, aste bete beranduago telebistan bota behar baitzuten. Eta gero, jendearen txaloeikin, emozionalki lortu zenarekin.

Iñaki: Dokumental hori euskal kulturako zerbait ikusi nahi duenarentzat polita izango da ikusteko. Ez da harri-jasotzeari buruzko edo herri kirolari buruzko dokumentala bakarrik, bada beste zerbait gehixeago. Dokumental hori ikustea ez da joan behar harri-jasotzea gustatzen zaiolako bakarrik. Harri-jasotzea ikusten da, baina ez da harri-jasotzeari bakarrik buruzko dokumentala. Filma- ren haria konparaketa da, batez ere kanpotik etorri den konparaketa hori.

Inaxio: Erakusten da, nahiz eta, konparaketa hori egon bakoitzak bere entrenamenduak eta bakoitzak bere bidea jarraitu behar duela.



Larunbat honetan, gibela dastatuz emango diete hasiera Inauterietan lizartzarrek. U.

Aurtengo Inauterietan hasiera emateko prest daude jada Lizartzako herritarrak

Inauterietan larunbatean hasiko diren arren, hurrengo asteburuan izango dituzte ekitaldi gehienak

M. Ugartemendia Lizartza

Hilaren 19an hasi eta 27an amaituko dira Lizartzako Inauterietan. Data berdinean ospatu zituzten 1994. eta 2000. urtean ere. 1994. urtean Inauterietan berreskuratu zituzten urtean garizuma garaian ospatu bazituzten ere, geroztik egutegi arruntetan markatzen diren Inauterietan baino aste bete lehenago ospatzen dira Lizartzan.

Aurtengoan 18. aldiz ospatuko dituzte Inauterietan lizartzarrek. Hasiera larunbat honetan bertan emango diete, 12:00etan. Gainera, gibela dastatuz egingo dute, ohitura den bezala, udal ordezkariak eta txekorria plazan dituztelarik. Ondoren, antzerkia eta Otsolar taldearen eskutik dantza saioa izango dituzte. Honela, asteburu

honetako ospakizunei amaiera emango diete hurrengo asteburu arte.

Bigarren txanda

Inauterietan bigarren txanda hurrengo asteburuan izango dute. Hilaren 25ean, ostiralean, 14:15ean eskolak antolatutako mozorro festarekin hasiko dute ospakizunetz betetako asteburua. Ondoren, haurrek kalejira egingo dute. Larunbatean, hau da, hilaren 26an, 07:00etan lizartzarrek plazan elkartuko dira eta bertan kalejira egingo dute dantzari, txantzo eta txistulariekin, *Jeiki zaitzete Lizartzatarrok* abestuz hasiko dute Inauterietako egun hau. 07:30ean puske biltzera joango dira dantzariak eta txantxoak elkarrekin. 09:30ean geldialdi bat egingo dute Etxe-zahar baserrian gosaltzeko. 12:00etan mozorro, gurdi eta txarangen irteera egingo dute Errota ataritik. 13:30ean Inauterietako partaide guztiak kalejira aterako dira arrateko zubitik irtenda. Ondoren, denek batera bazkalduko dute herriko

frontoian. Arratsaldean ere ez dira geldirik egongo lizartzarrek. 18:00etan berriz ere, gurdi eta mozorroak Joxe Mariko aparkalekuan bilduko dira kalejira plaza-ra jaisteko.

Bertan sagardotegi ezberdinetako sagardoak eta Lizartzako talogileak egindako taloak jateko aukera izango da. Taloen ondoren bertso poteoa egingo dute tabernetatik kalejira.

Inauterietan amaiera hilaren 27an, igandean, emango diote. 11:00etan agintari eta dantzariak meza nagusira joango dira, txistulariek eskainitako *Agintari doinuaz* lagunduta. Ondoren hamaitakoa egingo dute plazan. Eguerdian, dantzariak kalean ibiliko dira puska biltzen, gurdi, mozorro eta gainerakoekin batera. 13:00etan Lizartzako Inaute Dantzak izango dira plazan eta 14:00etan Inauteri bazkaria pilotalekuan. Ondoren, txaranga, karrakea, jokuak, zozketa sariak eta abar izango dira. Amaitzeko, plazan ijitoa errez emango diete bukaera inauterietan.

Fernandez «oso pozik» dago gauzak ondo doazelako

Ur lasaietan dabilzan arren, Fernandezek eta Martinezek abiadura mantentzea lortu dute Mapfre ontziarekin

Erredakzioa Ibarra

Mapfre ontziak bigarren postuan mantentzen du. Gainera, lehenengo postuan doan Virbac-Paperec ontziak izan dituen arazo batzuk direla eta, orain duten 508 miliatiko tartea txikitzea posible izango da.

Jada 47. eguna dute Barcelona Word Race txapelketan. Gutxi gora behera ibilbidearen erdia eginga dute eta Zeelanda Berriko uretan nabigatzen ari dira orain.

Fernandezek eta Martinezek hirugarren postuan dagoen ontziari tartea handitu diete, eta gainera, lehenengo postuan doazen frantsesek Wellingtonen gelditua egin behar izan dutela jakin zuten atzo.

Astelehenean, Fernandezek bi-deokferentzia bidez «oso ondo eta oso pozik» daudela esan zuen. Euskaldunek azken 24 orduetan 81,6 milia irabazi dizkiete Imoca

60 ontziko Pepe Ribes eta Alex Pellari. Izan ere, ia geldirik egon behar izan zuten zenbait azterketa eta konponketa egin ahal izateko.

Fernandez eta Martinezen kezka nagusia antizikloiak nola eragingo ote zien zen, baina antizikloia ekialderantz doa eta badirudi beraiek erditik pasa direla ondorio handirik jasan gabe. Nahiz eta, oraindik arreta berezia izan beharko duten.

Virbac Paperec eta Groupe Bel ontziek egin dituzte geldiduneko txapelketaren edizio honetan. Ondorioz, zigor moduan 48 orduetan geldirik egon beharko dute bi ontziek 140 graduko ekialdeko meridianean. Honek lehia are gehiago estutuko du.

↓ Word Race

SAILKAPENA

- **1. Virbac Paperec.** Helmugatik 11.531,5 miliatara.
- **2. Mapfre.** + 508 miliatara.
- **3. Estrella Damm Sailing Team.** + 726,1 miliatara.
- **Grupo Bel.** + 829,6 miliatara.
- **Renault.** + 1.229,9 miliatara.



Mapfre ontzia Zeelanda Berrian dabil orain. HITZA

→ Laburrak

Haitzetan Raju Lizarrara asteburu pasa

IBARRA > Haitzetan Raju Mendi Taldeak asteburu pasa antolatuta du asteburu honetarako. Irteerara joan nahi dutenek larunbatean 08:00etan Ibarra plaza joan beharko dute. Asteburu honetan Nafarroa bisitatu dute, zehazki Lizarrara joango dira. Bertako mendi taldearekin senideturik aurkitzen dira eta haiekin batera mendira joateaz gain beste hainbat ekitaldi egingo dituzte.

‘Rei Kimera’ taldearen kontzertua Gaztetxean

BERROBI > Larunbat honetan, *Rei Kimera* talde tolosarrak kontzertua eskainiko du Begigorri Gaztetxean. Kontzertua 23:00etan hasiko da, eta musikaz gozatu nahi duen edonor gonbidatuta dago Berrobiko Gaztetxera.



Ibarra Udala

IRAGARKIA
UDALAREN TASAK

Ibarra Udala hau adierazi du: familia unitate bakoitzeko 2011rako indarrean dagoen lanbidearteko gutxieneko soldata (641,40 ¢) baino gutxiagoko diru-sarrerak egiaztatzen dituzten pertsona fisikoak salbuesita daudela zabor-bilketagatik tasa ordaintzetik, eta uraren kontsumoagatik eta estolderia erabiltzeagatik tasan hobaria izango dutela. Ondorio horietarako, famili unitatez hartuko dira, etxebizitza berean bizi, eta beren artean notabaiteko harremana duten pertsonak. Famili unitatearen kide guztiak Ibarra erroldan egon behar dira.

Eskaerarekin batera honako agiri hauek ekarri behar dira:

Nortasun-agiria, familia unitatearen kide guztien diru-sararren ziurtagiria, 2010eko uraren ordainagiriak eta zabor-bilketagatik ordainagiria.

Tasen salbuespen- eta hobari-eskaerak Ibarra Udalen Gizarte Ongizate sailean aurkeztu behar dira 2011ko martxoaren 4a baino lehen. Orduetia: astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara.



Ibarra Udala

IRAGARKIA

FAMILIA UGARIKO
TITULARRENTZAKO
ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO
ZERGAN HOBARIA

Zergaren %50eko hobaria aplikatuko zaie familia ugariko titular izan eta baldintza hori justifikatu dezaketen subjektu pasiboak.

Eskaera hobariak erreferentzia egiten duen zergaldiko otsailaren 28a baino lehen aurkeztu beharko da.

Zazpi-Iturrik igandean jokatu du zornotzarren aurka Berria Txapelketan

Lagun Onak elkarteak izango du aurkari eta partida Zornotzako frontoian jokatuko du amezketarrek

Imanol Garcia Amezketak

Amezketako Zazpi-Iturri pilota elkarteak igandean hasiko da Berria Txapelketan parte hartzen. Aurrez aurre Zornotzako Lagun Onak elkarteak izango du, eskualdeko Intxurre elkarteak txapelketatik kanporatu zuena. Zornotza-

ren frontoian izango da norgehiagoka, igandean, 18:00etan.

Amezketarren aldetik kadeteetan Altuna-Irribarriak jokatuko du, jubenetan Gallurralde. Jaka ariko dira eta nagusietan Ropon-Garmendia. Kanporaketaren aurrean baikor azaltzen da Xalton Zabala Zazpi-Iturriko arduraduna: «Kadeteetan eta jubenetan irabaziko dugula uste dut. Nagusietan ikusi beharko dugu. Halere, irabazten diren partidak ez dira kontuan hartzen, egiten diren tantoak baizik. Horregatik zortea ere kontuan hartu behar da».

Euskal Herriko txapelketan zornotzarren aurka aritu ziren kadete mailan eta orduan 22-13 irabazi zieten. Aldaketak izango dira: «Beraiek beste aurrelari bat izango dute, baina guk atzelari bezala Irribarria izango dugu», azaldu du Zabalak.

Aurrera begira Zabalak espero du taldea indartzen joatea nagusien mailan. «Orain Olaetxea lesionatuta daukagu eta Ropon ez dabil eskuetatik oso ondo», dio. Amezketarrek kanporaketa pasatzen badute ziurrenik iazko txapelkunekin topatuko dira, Galdakaoko Adiskide elkarteak.

Finalerdiak jokoan Euskal Herriko Txapelketan

Erredakzioa

Euskal Herriko Pilota Txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte asteburu honetan Aurrera Saiaz, Zazpi-Iturri eta Intxurre elkarteek pilotariak. Aurrera Saiaz elkarteek bi talde dituzte finalerdietan eta horietako batek dagoneko jokatu zuen bere partida astelehenean. 20-22 irabazi zioten Urbietak eta Telletxeak nagusien ohorezko mailan Adiskide elkarteak eta, beraz, finalean daude. Kadete mailako bikoteak, Mujika eta Iruretagoienak, etzi larunba-

ta Usansolo elkartearen aurka jokatu du Beotibarren, 10:30ean.

Zazpi-Iturrikoek Amezketan jokatuko dituzte, bihar 20:00etan, partidak. Irribarria kadeteak eskuz banaka jokatu du Andoingo elkartean dagoen Tolosa anoetarraren aurka. Jaka jubentlak eskuz banaka jokatu du Goierri elkarteak Erostarberen aurka.

Bere aldetik, Intxurre elkarteak jubentlak, Nazabal eta Artola, Adiskidekoen aurka ariko dira etzi, larunbata, 19:00etan Galdakaon.

Aurrera Saiaz final laurdenetara

Erredakzioa

Eskualdeko bi elkartek jokatu dituzte aurretik final zortzirenak: Aurrera Saiazek eta Leitzako Aurrerak. Leitzarrek 3-0 galdu zuten Doneztebeko Erreka elkartearen aurka eta beraz txapelketatik kanpo geratu dira. Aurrera Saiazek 3-0 irabazi zion Baztango Txarutari eta final laurdenetan Errekaren aurka jokatu du. Martxoaren 4ean izango da partida Beotibarren.

Aurrera Saiazeko kadeteak, Mujika-Iruretagoienak, 22-8 irabazi zuten. Jubentleak, Labaka-Arratibeak, eta nagusiek, Narbarte-Telleteak, 22-17 irabazi zituzten beraien partidak.



Berria Txapelketako kanporaketa aritu zen Aurrera-Saiazeko taldea. HITZA

Irudia ◊ Alegia



'ILUNPEKO BIDAIK'

Alegiako jubilatuen tabernan Sara Gomez amezketarraren argazki erakusketa ikusi ahal da hilaren amaiera arte. *Ilunpeko bidaiak* izena du eta bertan Irati Mujika preso amezketarrari eta Andoni Otegi preso leaburuarrari bisitak egitera joaterakoan bizitutakoa islatzen du zuri-beltzeko argazkietan. HITZA

Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



LURDES OTEGI



*Zure gitanak eta etxeak
ez dugu zure irribarrea ahaztuko,
ezta zu ere!
Maite zaitut izeba!*

IBARRAN, 2011ko otsailaren 17a

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala


Funeraria Vascongada ere pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazozina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Aurtengo kobraketa kanpainak baditu irabazleak

Nieves Alegriak bi pertsonentzako otordua bat eskuratu du eta Juan Bautista Urkizarrek zapata pare bat

Erredakzioa

Jakingo duzun ez irakurle, abian da jada 2011ko kobraketa kanpaina. Urteko kuota 62 eurokoa da eta bi sari ere zozketatu dira ordainketa egiteko kontu korrontea emana zutenen zein eman dutenen artean, batetik, eta atariko giltza utzi dutenen artean, bestetik. Kontu korrontea eman dutenen artean Tolosako Nieves Alegria izan da irabazlea eta Tolosako Fronton jatetxean bi pertsonentzako otordua irabazi du. Giltza eman dutenen artean aldiz, Juan Bautista Urkizar tolosarrak irabazi du. Tolosako Lizarribar zapata dendako oinetako pare bat

eskuratuko du. Zorionak irabazleei, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA jarriko da beraiekin harremanetan.

Bestetik, zerbitzua hobetze aldera atariko giltza utzi ez duten harpidedunei egiteko deia luzatu nahi dio TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK, hartara banaketa behar bezala egiteko.

Giltza uzteko edota bestelako iradokizunen bat egiteko hau da bezeroentzako arreta zenbakia: 902 82 02 01. Bukatzeko aro berri honetan TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK webguneak eraberritu dituela gogoratu behar da eta Interneteko sare sozialetan murgildu dela www.berriketan.info atariaren bidez.



Agurrak



Gure **Eñaut Unanue** mutil kozkorak urtetxo bat egingo du gure artean. Zorionak pottoko eta segi beti bezain umoretsu eta alai. Muxuak. Etxekoak.

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurrak**

Agenda

DEIALDIK

- **Ibarra.** Uzturpe ikastolak 0-5 urte bitarteko haurren gurasoei zuzendutako hitzaldia eskainiko du gaur 18:00etan kultur etxean. Nerea Mendizabal psikopedagogoak eskainiko du *Errespetuzko komunikazioa: bizitzarako komunikazioa* izena duen hitzaldia.
- **Asteasu.** Sagain mendi elkar-tee egun osoko mendi irteera egingo du igandean Arabako Lokizera. Izena emateko azken eguna osteguna izango da, hilak 17. Kiroldegian eman behar da izena. Irteera 08:00etan izango da. 12 urtetik beherakoei 5 euro ordaindu behar dituzte eta gaintzekoei 10 euro. 4,5 km inguruko ibilbidea izango da.
- **Ibarra.** Haitzetan Raju mendi taldeak raba, Bizkaia eta Xiberrua igaro eta gero, Nafarroako mendi irteera egingo du asteburu honetan. Lizarrako lagunekin batera antolatutako irteera da. Haurrentzako ibilalditoxa ere prestatu dutela argitu dute antolatzaileek. Larunbatean 08:00etan irtena dira herriko plazatik.
- **Ibarra.** Udaleko Kirol sailak ireki du 2011 urterako Kirol Jarduerearako diru laguntzak eskatzeko epea. Eskeraurteko azken eguna martxoaren 15a izango da. Oinarriak nahiz aurkeztu beharreko agiria www.ibarrakoudala.net batetik, eta bestetik, kiroldegiko bulegoetan ere eskatu ahal dira 08:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 22:00etara.
- **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago. Lehiaketan parte hartu nahi duenak izena eman dezake bai kultur etxean eta baita helbide

honetan www.tolosakoudala.org/inauteriak/.

- **Tolosa.** Martxoaren 4a bitarte (egun hau barne) eskatu daitezke Uzturre Asistentzia Zentroko apartamentu balioaniztasunak eskuratzeko eskaerak.
- **Tolosa.** Tolosaldea Garatzenek eta Tolosako Udalak enplegua sustatzeko antolatutako egitasmoaren barne bi ikastaro antolatu dituzte langabetuentzako: sukaldaritza laguntzailearena eta planoen interpretazioarena. Izena Tolosaldea Garatzenen eman behar da.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** *Jeiki, jeiki* erakusketa Aranburu jauregian martxoaren 20a arte. Nestor Ardanaz argazkilaria tolosarrak zuzendu du erakusketa.
- **Tolosa.** Wayang Golek Indonesiako txotxongiloak ikusi daitezke martxoaren 13a arte TOPIC-en. Panpin hauen aurpegi eta keinu desitxuratuak erlijioaren debekua nolabaik gaintziteko sortuak dira. UNESCOk 2003an izendatu zituen txotxongilo hauek Gizateriaren Ahozko Ondare Ukaezin.
- **Tolosa.** GKO galerian Mixmedia erakusketa ikusi daiteke apirilaren 2a arte.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Azpiroz L. Amarotz auzoa, 9. 7.943 67 51 18.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarrin, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

**LEA-ARTIBAI, MUTRIKU
ETA BUSTURIALDEA** hitza info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)
www.lea-artibaietamutriku.hitza.info
www.busturialdea.hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Okamika Indus, Okamika Goko baserria - 48259 Gizaburuaga
Pedro Aboitiz Isasi I - 48300 Gernika

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak: _____ •NA: _____

•Lanbidea: _____ •Jaioteguna: _____

•Helbidea: _____ •Herria: _____

•P.K.: _____ •Tel.: _____

•Posta elektronikoa: _____

•Kontu zenbakia: